

EDITORIALA

Ohiko lanpostuaz

Ezaguna da krisiaren ondorio lazarrik bereziki kolpatu dutela langile klasea, bai lana dutenei eta bereziki lanik gabe geratu direnei. Propagandaz aparte, agintariek burutzen dituzten politikak ez diote langabeziaren arazoari serioski heltzen eta ohiko plangintzatan murgildurik dihardute, arazoak beharko lituzkeen baliabideak ez zaizkiola eskaintzen aitorturik. Milaka eta milaka herritar bidali da langabeziaren zerrenda handia loditzera. Horietako askok, dagoeneko, bere prestazioak agortu ditu eta behartua dago diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzera, honek ere urteko ekarpena mugatua duelarik.

Testuinguru horretan, guztiz zilegi eta ulergarria da, onuragarria ere esan behar da, lanik gabe geratu direnak eta lana dutenak, elkartasunez, enpleguen defentsa aldarrikatzea eta mobilizatzea. Dirudi, duela egun gutxi ikusitako argazkiari erreparatu, agintariek ez dutela gustuko aldarrikapen horiek entzutea eta, kasu honetan, Iñigo Urkullu lehendakariak berak bere jarrera aurpegiratu die Osakidetza enpleguaren defentsan mobilizatzean ari zirenei.

Edozein gizarte demokratikoak errespetatu beharko lituzke aldarrikapenak, are gehiago enpleguarekin burutzen ari den sarraskia ikusita. Eta are gehiago, bidezkoa eta zuzena baita, ardura politikoak dituzten agintariek aldarrikapen horiek begirunez babestea. Kasu honetan, gure datuen arabera, Lehendakari berria gobernura iritsi zenetik, Osakidetza bakarrik 1.481 lanpostu suntsitu dira. Zer esanik ez bere ardurapekoa den gainontzeko administrazio publikoaren esparruan –zuzeneko nahiz azpikontratatuturiko langileekin– emandako enplegu murrizketa. Haatik, ulertu beharko luke Lehendakaria jaunak jendea haserre dagoela, nazkaturik ere bada goela eta gobernu erantzukizunak dituzten agintariei bideratzen zaizkiola aldarrikapenak.

“Hau al da zuen ohiko lanpostua?” galdera luzatu zien Lehendakariak kalean lanpostuen defentsan pankarta-ekin mobilizatzen zeudeno. Kritika txikiena onartzen ez duenaren jarrera izan zuen. Agian hobe luke pankartaren beste aldera pasa eta lana duten eta ez dutenekin, elkartasunez, tartetxo batean kezka eta aldarrikapenak partekatzea, erakutsitako sumindura enplegua suntsitzen dutenon aurka bideratuaz.

Lankidetu!

Mirari Irure denuncia que el objetivo del Gobierno Vasco es proteger los negocios privados en perjuicio de nuestras condiciones laborales

“LA DIPUTACIÓN DE BIZKAIA ESTÁ TORPEDEANDO LA ILP”

26 de junio. El Parlamento Vasco aceptó tramitar la Iniciativa Legislativa Popular que ELA venía desarrollando los últimos meses sobre las condiciones laborales de las y los trabajadores que trabajan bajo la figura de la subcontratación para la Administración Pública. La iniciativa no tuvo el apoyo de todos los partidos. EH Bildu, PSE y UPyD votaron a favor; PNV y PP, por su parte, se abstuvieron. Mirari Irure, secretaria general de ELA-Zerbitzuak, denuncia las artimañas que el Partido Nacionalista Vasco está utilizando para torpedear la tramitación de esta iniciativa.

-La Diputación Foral de Bizkaia ha denunciado ante el Parlamento Vasco la ILP en torno a la subcontratación. ¿Qué lectura haces?

-Una lectura muy negativa, como no puede ser de otra manera. Es evidente que al Partido Nacionalista Vasco no le gustó el resultado de la votación del 26 de junio. Por eso ha decidido utilizar todas las artimañas a su alcance para evitar la tramitación. En este caso, ha utilizado a la Diputación Foral de Bizkaia para conseguir su objetivo.

-¿Cómo?

-Obstruyendo la tramitación de la Iniciativa Legislativa Popular. Utilizando el trámite previsto en el artículo 39 de Estatuto de Autonomía de la CAPV ha argumentado que hay una “cuestión de competencia”, es decir, que la ILP “invade sus competencias”. Todo esto se nos hace increíble. ELA se reunió con todos los partidos que tienen representación en el Parlamento Vasco para dar a conocer la iniciativa. Evidentemente también nos reunimos con el PNV, y en ningún momento nos mencionaron el argumento del problema competencial.

No hay más que ver la denuncia de la Diputación Foral de Bizkaia para comprobar que detrás de todo solo hay razones políticas. No se menciona en ningún momento qué norma o competencia legal se invade. Lo que pretende la denuncia es torpedear el proceso. El supuesto *problema competencial* es una burda excusa, como lo demuestra el hecho de que no hayan justificado en ningún momento la solicitud de la cuestión de competencia.

El recurso presentado por la Diputación Foral de Bizkaia es muy significativo. En la propia cuestión de competencia se subraya que, si efectivamente pudiera incurrirse en una invasión competencial, ello conllevaría la suspensión del proyecto de ley. Por lo tanto, en el propio escrito declaran sin tapujos su objetivo: la retirada del proyecto. Resulta llamativo que, existiendo la posibilidad de enmendar el texto en cualquiera de sus apartados, no hayan optado por esa vía que, en el peor de los casos, daría la opción de, al menos, solucionar parte del problema.

-¿Cuál es, en tu opinión, el objetivo de que la Diputación Foral de Bizkaia haya denunciado la ILP?

-El PNV, en este caso mediante la Diputación Foral de Bizkaia, pretende obstaculizar el trabajo del Parlamento Vasco. Como consecuencia de la demanda se suspende la tramitación de la iniciativa popular, y será una Comisión Arbitral extra-parlamentaria quien vaya a decidir si finalmente se tramita o no. Y la composición de esa comisión es muy significativa. Está compuesta por siete personas: tres vocales nombrados por el propio Gobierno Vasco, otras tres nombradas por las Diputaciones de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia y, por último, el presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

El objetivo de todas estas triquiñuelas es evidente. Quieren primar los negocios privados en perjuicio de los derechos e intereses de la clase trabajadora. En definitiva, trabajan para las empresas adjudicatarias de los contratos públicos. Hablamos de empresas que ganan muchísimo dinero sin asumir ningún riesgo a costa de destruir empleo y explotar a los trabajadores y trabajadoras de las subcontratas. Es vergonzoso que el partido que está actualmente en el gobierno se posicione en favor de esas empresas adjudicatarias y que no quiera ni siquiera discutir de las políticas de subcontratación.

En definitiva, quieren evitar el debate. La fase actual –enmiendas al proyecto de ley–, obliga a los partidos a entrar al fondo del asunto y ver cuáles son los problemas ligados a la subcontratación. Y los problemas son tantos y de tal magnitud que sería inaceptable



que, una vez detectados, no se hiciera algo al respecto, aunque fuera distinto a lo previsto en nuestra ILP. Por eso impiden el debate.


-La decisión, por lo tanto, es un duro golpe para todas aquellas personas que apoyaron la ILP..

-Es muy grave todo lo que está pasando. Y lo peor es que durante todo el proceso hemos venido denunciando las trabas que el Gobierno Vasco nos ha ido poniendo por el camino. Desde un primer momento ha quedado claro que el PNV no tiene ninguna intención de discutir sobre este tema. Y queda claro una vez más, el escaso concepto que tienen de la democracia. No olvidemos que esta ILP tuvo el apoyo de 109.396 personas, y que estamos ante un tema vital que puede servir para que, mediante esta iniciativa, miles y miles de personas mejoren sus condiciones laborales.

Las cuestiones que solicitamos en la ILP son básicas. Nuestro objetivo es proteger el empleo y las condiciones laborales. Sin embargo, ¿los intereses de quién defiende el Gobierno Vasco? ¿Los de aquellas personas que quieren tratar de conservar su empleo y proteger sus condiciones laborales? Pues parece que no... Lo que está claro es que el negocio de las subcontratas mueve mucho dinero, mucho dinero público. Por lo visto lo que este gobierno defiende son los intereses privados de unos pocos, aunque sea a costa de despedir trabajadores/as y de precarizar las condiciones de trabajo.

LAN PREKARIETATEAREN ADIBIDEAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN AZPIKONTRATAZIOAN

Azpikontrazioaren inguruko Legegintzako Herri-Ekimen aurkezteko ELAK txosten hau banatu zien Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politiko guztiei. Bertan azpikontrazio publikoaren inguruan gure sindikatuak antzeman dituen arazo nagusiak jasotzen dira. Txostenak, –ondorengo lerroetan irakurri ahal izango duzuen–, arazo honen larritasuna eta zabalkunde hobeto ulertzeko gakoak eskaintzen dizkigu.



SARRERA

ELAK aurkeztutako Herri Ekimen Legegilearen asmoa da euskal administrazio publikoaren erkidegoko, foru aldundietako eta tokiko administrazio publikoek azpikonttratutako esparruetako lan-baldintzetan eragiten duten arazo nagusiei konponbidea ematea. Kontratazio publiko bidez esleitzen diren obra, zerbitzu eta gainerako jarduerak ez dute lan-baldintzak errespetatzeko gutxieneko bermerik, eta horrek eragin kaltegarria du emandako zerbitzuaren, obraren edo jardueraren kalitatean.

Ugariak eta nabarmenak dira lan-prekarietatearen adibideak azpikontrazio publikoaren esparruan, eta arazoaren jatorria eta muina era askotakoa da: zer hitzarmen aplikatu behar den oso zehaztuta edo garbi ez egotea, enpresen gehiegikeriazko jardunen aurrean neurriak ez aurreikustea, prezioa berrikusteko aurreikusitako baliabideak zertara bideratzen diren ez adieraztea, etab. Nolanahi dela ere, azpikonttratutako langileek ordaintzen dituzte, larrutik ordaindu ere, enpleguari eusteko eta enplegu hori ahalik eta duina izateko gutxieneko bermerik ez izatearen ondorioak.

Zorionez, egoera eta errealitate hori nabarmen hobetu daiteke, beti ere horretarako borondate politikoa izanez gero. Legediak, horretarako ahalmena eskaintzeaz gain, urrats nabarmena ematen du kontratazio publikoan klausula sozialak gehitzeko: hor da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.

Kontratazio publikoaren esparruan askotariko lan-egoerak daude, azpikonttratutako jarduera zein sektoretakoa den. Nolanahi dela ere, egoera horietan guztietan bada errepikatzen den gaitz bat: helburua beti izan da kostua merkatzea, nola ez lan-baldintzen kaltetan. Gauzak horrela, enpresek era askotako arru eta martingalak baliatu dituzte, horietako batzuk baita legez kanpokoak ere, ekonomia aldetik hitzarmen merkeena aplikatzeko. Azpikontrazio publikoan atzemandako arazo nagusiak hautatu eta adierazi ditugu txosten honetan; arazoaren neurriak eta garrantziak ohartzeko aukera emango digu horrek.

ADIBIDEAK

1.-Enpresa aldatzean enplegua suntsitzen da, baldintzen pleguak subrogazioaren betebeharrak ez jasotzeagatik.

Sarritan gertatzen da hori eta, zoritxarrez, ia egunero ditugu adibideak. Azken adibidea KZguneena da: enpresa esleipendun berriak, Indra-k eta LKS-k osatutako aldi baterako enpresa-elkarteak, Gipuzkoako eta Arabako langile bakan batzuei baino ez zien egin elkarrikeria, eta, gainera, lan-baldintza negargarriak eskaini zizkien, urtean 12.000 euro, aurrez 14.000 euro kobratzen zituztenean, antzinasun handiena zutenek behintzat. Hau da, maniobra horren bidez enpleguaren %50 suntsitu da EAEn eskaintako zerbitzu horretan.

2.-Lanaldi partzialeko kontratuen partzializazio are handiagoa.

Oso ohiko adibidea da zenbait sektoretan, garbiketarenean adibidez; subrogazio-eskubidea jasota dago negoziatio kolektiboan, baina bermea ez da osoa, ez eta kasu guztietarako ere. Kasu horietan, enplegua suntsitzen da, baina beste era batera, lan-baldintzak aldatuz: lanaldiak murriztuz, garbitu beharreko gunea/ibilbidea handituz baina ordu kopuru berari eutsiz, etab.

3.-Aplikatzekoa den hitzarmena aldatzearen ondorioz lan-baldintzak okertzen dira, sektoreko hitzarmen jakin bateko baldintzak gutxieneko zatitza ez finkatzeagatik.

Hauxe da beste kasu ohikoetako bat, eta azken urteotan larriagotu egin da gainera, krisiaren aitzakian; are gehiago, hitzarmenaren aurreraeragina legez kendu denetik.

Negoziatio kolektiboaren erreforma baino lehen ere gertatzen zen, batez ere tokiko administrazioan; izan ere, azpikonttratetako langileek, sarri, sektoreko hitzarmenaren jasotakoak baino baldintza hobekiak izaten zituzten, enpresa kontratatzailearekin adostutako akordioaren bidez, eta administrazio publikoak onetsi egiten zuen beti akordio hori. Lehiaketa publiko berri bat zabaltzen zen aldiro, zer hitzarmen aplikatu behar zen jasotzen ez zenez, enpresa lehiatzaile batzuek baldintzak apaltzearen edo kaskartzearen alde egiten zuten, kontratua lortze aldera, eta askotan eskuratu egiten zuten esleipena. Enpresa berriak aurreko langileei baino ez zizkien errespetatzen lan-baldintzak (derrigorrez, sektoreko hitzarmenaren jasotako subrogazio-betebeharragatik); izan ere, langile kontratatu berriei sektoreko hitzarmenaren baldintzak aplikatzen zizkien edo, gizarteratzeko enpresak edo zerbitzu osagarrietako enpresak baziren, enpresa-hitzarmen askoz apalagoa. Egoera horrek soldata-eskala bikoitzak sortu ditu hainbat arlo eta enpresatan, langile batzuek eta besteek lan bera egin arren, eta lan arloan diskriminazio nabarmena eragin du.

Gaur egun, erreformaren ondotik, jardun horiek ugari egin dira, oso modu kezagarrian. Adibidez, Gipuzkoan, kirol kudeaketaren sektorean, hitzarmena ez berritzeak era guztietako gehiegikeriak ekarri ditu. Hitzarmenaren aurreraeragina legez kendu baino lehen ere, enpresek, titulartasun publikoko kirol-instalazioen hitzarmen berriak onartu eziniko gainkostua sortzen zuela aitzakiatzat harturik, sekulako gehiegikeriak sinatzera behartu zituzten langileak: kasu batzuetan, aurreko hitzarmena aplikatzera; beste batzuetan, soldadak murriztera eta “krisia amaitu arte” hitzarmen berriaren aplikazioari uko egitera (horrela dago idatzita klausula, hitzez hitz). Gaur egun, hitzarmenak jada

aurreraeraginik ez duelarik, jardun horiek ia sektore osoa zabaldu dira.

4.-Hainbat kontratu behar baino prezio apalagoan esleitu dira, dagokion sektoreko hitzarmena aplikatzeak ekarriko lukeen kostua baino prezio txikiagoan.

Horrelakoak ere ohikoak dira, eta gure iritziz, aurreko adibideak baino are larriagoak dira kasu horiek; izan ere, administrazioak, gutxieneko lan-baldintzak ez bermatzeaz gain, baldintza horiek okertzen eta prekarietatea bultzatzen lagundu du.

Esate baterako, anbulantzien sektorean gertatu da hori: administrazioak, barne txosten bati entzungor eginda, lehiaketarekin aurrera egin eta kontratua esleitu zuen, nahiz eta txosten horren arabera balizko esleipena ausarkeriaz eta arinegi eginikoa izan, prezio baxuegian hitzartzeagatik.

Gipuzkoako udalerrri bateko kirol kudeaketaren zerbitzua ere era horretako kontratu baten bidez esleitu dutela jakin dugu, kirol instalazioen hitzarmena artean indarrean zegoela gainera. ELAK barne-bidea baliatu zuen esleipen hori salatzen, baina udalak entzungor egin zion salaketari eta aurrera jarraitu zuen prozesuarekin. Gaur egun, kiroldegi horretan ikuskizun eta kirolen aurreko hitzarmena aplikatzen da.

5.-Enpresen ez-betetzeak: langileen osasuna eta bizitza arriskuan jartzen dituztenak.

Hainbat dira enpresen ez-betetzeak gizarte segurantzari eta negoziatio kolektiboari dagokionean, baina puntu honetan segurtasun eta osasunari dagokionak aztertuko ditugu, larriak direlako eta atzean dagoen ondasun juridikoa oso garrantzitsua delako: bizitza bera.

Zenbaezinak dira lanaren segurtasuna eta osasunari buruzko arautegia betetzen ez duten obra publikoak. Hasteko, kontuan izan behar da eraikuntza bezalako sektorean oso ohikoa dela kate-azpikontrazioa. Horren ondorioz, oraindik eta exigenteagoa da administrazioaren aldetik benetako kontrol eragingarria egotea, nahiz eta kontrol hori gauzatzeako zailtasun objektiboak egon. Horrela, azpikonttratutako enpresek ez dute sarritan prebentzio-plan egokirik eta beren langileek ez dute jasotzen prebentzio arloan beharrezko prestakuntzarik. Obra publikoan lanaren segurtasun eta osasunean gertatzen den guztiaren azken erantzuleak administrazioak izan behar dira.

Beste arazo garrantzitsua lizitazio- eta esleipen-prezioen arteko aldean datza: horren ondorioz “baja ausartegi” izenez ezagutzen direnak gertatzen baitira. Horren eraginez, besteak beste, azpikontrazioaren katean zehar enpresak lanaren segurtasun eta osasun neurriekiko lasakerian erortzen dira. Erabiltzen den material edo makinei sarri ez zaizkie azterketa teknikoak egin haien erabilera seguru bermatu ahal izateko. Batzuetan, langile guztiak dira jakitun makina zehatz bat ondo ez dabilela eta bere bizitza babesteko hura erabiltzeari uko egin behar izan diote.

Obra Publikoetan lan osasunaren arloan eman ohi den beste arazoa lanaldiaren luzapen neurriegabeak dira. Horien arriskua nabarmena da eta administrazioaren inolako kontrolrik gabe eman ohi dira. Sarritan, istripuak eguneko azken lanorduetan geratu ohi dira, 10, 12, 14 edota 16 orduarteko jarraikako lanaldietan. Obratan, posible da ezartzea irekiera- eta itxiera-orduak, baita langileen ordutegia kontrolatzeko neurriak ere.

Egoera horiek guztiak errotik aldatu behar dira, izan ere, laneko ezbehar-kopuruak kezka-



tzeko modukoak baitira azpikontrata publikoen esparruan ere.

6.-Enpresa esleipendunak modu bidegabean aberastu dira diru publikoekin.

Jatorri desberdineko hiru adibidek oso modu grafikoan erakusten dute zer esan nahi dugun enpresak modu bidegabean aberastu direla adierazten dugularik.

Lehen adibidea, Gipuzkoako garbiketaren enpresa batena da, baina seguru asko badira horrelako kasuak beste sektore eta lurralde batzuetan ere. 2010. urtetik, Gipuzkoako udal askok berrikusi egin dute kontratuaren prezioa aldiari-aldiari egin beharreko luzapen edo esleipenetan, eta kasurik gehienetan KPlaren %85 inguruko portzentajea finkatu dute prezioa urte bakoitzeko. Epealdi honetan (4 urtetik gora), enpresak izoztuta eduki dute langileen soldata, hitzarmena ez dela berritu aitzakiatzat hartuta, eta ez dute inolako zenbatekorik ordaindu kontura. Horrek esan nahi du prezioen berrikusketetan aurreikusitako diru guztia enpresen zakua eta emaitzen kontua gizentzera joan dela; hau da, berrikusketak horren %100 enpresen etekinetara joan dela; izan ere, zerbitzu horren kostu ia oso-oso eskulanarena besterik ez da.

Bigarren kasua ere garbiketaren sektorean gertatu zen. Zehazki, Gipuzkoan, zerga administrazioko estatu agentziaren bulegoan zerbitzua ematen zuen enpresa batean. Enpresa horrek, Esabek, ez zien soldatarik ordaindu langileei hainbat hilabetez. Alabaina, administrazioak adierazi zuen legez ezin zuela Esabekin hitzartutako kontratua indarririk gabe utzi; hala, hilabete haietan guztietan Esabek zegoekin

kontraprestazioa jaso zuen administrazioaren eskutik, garbiketaren zerbitzua egiteagatik. Areago, langileek grebara jo zuten, bai baitzekiten ez zutela kobratuko, eta egoera horretan ere (enpresak soldatarik ordaintzen ez zuela eta zerbitzurik ematen ez zuela), administrazioak jarraitu zuen esaten ezin zuela ezer egin enpresak dirurik jaso ez zezan. Azkenik, Esabek likidatu eta itxi egin zuen; langileek, berriz, Soldatatzeko Funtsera jo behar izan zuten, horrek altxortegi publikokora sortzen duen karga bikoitzarekin.

Hirugarrena: Hernaniko bariantearen eraikuntza-lanak. Kasurik larriena ez bada ere, informazio gehien bildu duen kasua da. Urtebeteko epean, 67 langilera 1,2 milioi euro zor zieten, Lan-ikuskaritzaren txostenean jasotzen denaren arabera. Horietatik, 180.000 euro baino ez zaizkie ordaindu, lan-epaitegian demanda sartu zuten 10 langileei zegozkienak, hain zuzen ere. Enpresa Administrazioak ordaindu zion milioi bat erurorrek geratu da. Fiskalki, ordaindu ez diren soldata horietatik diru-kutxa publikora 400.000 euro gutxiago sartu dira.

7.-Ugaritu egin dira probintziako sektore-hitzarmenen aldean baldintza okerragoko enpresa-hitzarmenak aplikatzen dituzten zerbitzu osagarrien enprekin egi

Outsourcing edo zerbitzu osagarrietako enpresak sartzen ari dira hainbat jardueratan: atezaintzan edo etxezaintzan, sarbideen kontrolean, etab. "Sektore anitz" horretan estatuko hitzarmen oso prekariora aplikatzen dute, baina, horrez gain, oro har, enpresak estatuko enpresa-hitzarmen are prekariora goak dituzte, hilean 600-800 euro inguruko soldatekin.

CONCLUSIONES

En definitiva, todos los anteriores ejemplos son una muestra de que son innumerables los ejemplos de precariedad laboral que hoy nos encontramos en el ámbito subcontratado por la administración pública. Esta indeseable realidad, tiene ciertamente una solución relativamente sencilla: la inclusión de las cláusulas sociales que ELA propone a través de la ILP y un control y seguimiento por parte de la administración de la ejecución de los contratos.


La ILP presentada por ELA no pretende ser un texto cerrado, sino un texto que invite a la reflexión sobre la incorporación de cláusulas sociales que de verdad garanticen unas condiciones mínimas de trabajo y el mantenimiento del empleo en la administración pública y que, a su vez, dote a la administración de herramientas eficaces para impedir abusos de cualquier tipo por parte de las empresas. Sería una oportunidad perdida que el debate sobre qué cláusulas sociales han de incorporarse en la contratación pública de la CAPV, se resuelva con menciones genéricas que terminan siendo meras recomendaciones que no solucionan el problema y cierran en falso un debate sobre un problema tan importante.

Por todo ello, ELA se ofrece a celebrar cuantas reuniones estimen necesarias con los grupos parlamentarios, para exponer con detalle la realidad que ha conocido en el ámbito subcontratado público y poder aclarar o explicar cualquier cuestión sobre esta materia.

LABURREAN / BREVES

● Fallece Fernando López Beorlegui, un sindicalista ejemplar

El 25 de septiembre falleció en Iruñea a los 70 años Fernando López Beorlegui. Fernando comenzó su militancia en ELA siendo delegado en la empresa Talleres Mayo, para pasar posteriormente a dedicarse a tiempo completo a nuestra organización como responsable de los sectores de la construcción, la madera y el transporte. Sindicalista ejemplar, siempre al servicio de la clase trabajadora, también luchó durante muchos años en favor del euskera y, sobre todo, por la apertura de las Ikastolas municipales de Iruñea, allá por finales de los 70 del siglo pasado. Adiorik ez, Fernando!



● Manifestación en contra del cierre de Arkema Química

Las y los trabajadores de Arkema Química han organizado una manifestación para el sábado 11 de octubre en Bilbao –12:00, Sagrado Corazón–. El objetivo será exigir a la multinacional francesa Arkema que dé marcha atrás en su anuncio de cerrar la planta que tiene en Alonsotegi. ELA quiere volver a denunciar que no hay ningún motivo –ni económico ni productivo– que justifique el cierre. En este sentido, es necesario destacar que hablamos de una empresa que ha repartido 200 millones de euros de dividendos en el 2012 y 2013 y que ha tenido unos beneficios de 380 millones de euros en ese mismo periodo. Por otra parte, una delegación del comité de empresa acudió el martes 30 de

septiembre al Comité Europeo de Arkema en París, donde denunciaron la intención de cerrar la planta de Alonsotegi, además de exigir su mantenimiento.

● ELA exige la inmediata liberación de las cinco personas encarceladas en el 'caso Bateragune'

La plataforma *Arnaldo askatu! Politika askatu!* ha organizado una manifestación para el 11 de octubre en Elgoibar. ELA se suma a esta convocatoria que tienen como objetivo exigir la inmediata liberación de las cinco personas encarceladas en el 'caso Bateragune' –Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta y Arkaitz Rodríguez–. Precisamente el 13 de octubre se cumplen cinco años de su detención.

● TTPI-ren kontrako mobilizazioak

Gune plataforma osatzen duten sindikatu eta gizarte-eragileek deituta Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenaren (ingelesez TTIP) aurkako protesta ekintzak egingo dira urriaren 10ean. Mobilizazio horien aurkezpena urriaren 7an egingo da. (Datorren astean mobilizazio horien berri emango dugu luze eta zabal).

Oharra: Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak gai honen inguruko publikazioa argitaratu berri du, euskaraz eta gazteleraz –TTIP: Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko merkataritzako eta inbertsiorako hitzarmenaz–. Fundazioko kide Aiala Elorrietak egindako lan hau sarean dago eskuragarri: <http://www.mrfundazioa.org>

● Magníficos resultados en MercaBilbao y en el Servicio de Ayuda a Domicilio de Araba

Poco a poco continúa adelante el periodo concentrado de elecciones sindicales. Aunque la mayoría de las votaciones de la semana pasada fueron en las PYMES, –la inmensa mayoría de los comité de empresa se votan a partir de octubre–, hay dos magníficos resultados a destacar. Por una parte, el Servicio de Ayuda a Domicilio de Araba. El 1 de octubre se realizaron las elecciones en las cuatro empresas del sector –Arabako Laguntza, Eulen Sociosanitario, Aztertzen y Arqu-social–. En total ELA logró 23 de los 44 delegados y delegadas que se elegían, el 52,27%. Este dato supone subir dos delegados/as en un sector en el que se elegían dos menos –los cambios de subrogación ha supuesto la desaparición total o parcial de varias empresas–. Sin duda, estos resultados refuerzan el magnífico trabajo que ELA está realizando en el sector socio-sanitario.

Por otra parte, hay que destacar que ocho de las empresas que componen MercaBilbao ya han celebrado sus votaciones. Aunque todavía quedan varios procesos electorales abiertos en MercaBilbao, el balance hasta ahora es más que positivo: ELA ha conseguido mantener los 12 delegados/as que tenía en esas empresas. Esta misma semana se votarán gran parte de las empresas que faltan.

Joseba Villarreal exige un cambio radical de las políticas antisociales del Gobierno Vasco

“CON LAS ACTUALES POLÍTICAS ES INVIABLE EL DIÁLOGO SOCIAL”



–El documento elaborado por el gobierno nos parece impresentable. El único contratiempo para el ejecutivo es que hay alguien –ELA– que plantea los problemas, y eso no le gusta. El diálogo social no lo veta ELA, sino las políticas antisociales del gobierno y el cambio de escenario brutal que las leyes han impuesto en favor de la patronal.

Mientras los gobiernos aumenten las desigualdades sociales, el sindicalismo debería estar lejos de esas mesas. Sólo la dependencia estructural de los recursos públicos explica la presencia de otros sindicatos.

–¿Qué argumentos concretos esgrimió ELA para explicar su negativa a participar en la mesa de diálogo social de la CAPV?

– ELA ha vuelto a recordarle al gobierno hechos y actuaciones denunciadas reiteradamente. En primer lugar, que, más allá de la propaganda, realiza políticas de ajuste estructural incompatibles con el diálogo social. Prueba de ello son: la reducción del déficit –pasar del 1,7% al 0,7% en 2015 supone 200 millones en el presupuesto–, la prioridad del pago de la deuda pública –200

millones más de gasto– y una política fiscal muy injusta. A esto hay que añadir una política industrial inexistente que se concreta en defender una cruzada contra los impuestos a las empresas.

A partir de esos datos esenciales, la política presupuestaria del gobierno es similar a la de Rajoy y conlleva destrucción de empleo y recortes sociales.

En segundo lugar, en sus ámbitos de responsabilidad directa, el gobierno niega el derecho a la negociación colectiva de los empleados y empleadas públicos. Su apuesta por la caída salarial en el ámbito público se ha convertido en un referente para la patronal privada.

En tercer lugar, el *diálogo social* que plantea el gobierno es un subsistema del existente en España, y análogo al de Nafarroa.

Finalmente, no podemos dejar de resaltar el apoyo total y absoluto del gobierno a Confebask. No hay ni una sola crítica para una patronal que constituye un auténtico lobby de presión antidemocrático. Por contra, mientras elude cualquier juicio sobre el comportamiento de la patronal, el Gobierno

Vasco busca y encuentra su particular chivo expiatorio en ELA. Nos parece, cuando menos, injusto y desproporcionado.

–Las últimas decisiones del Gobierno Vasco no han hecho más que reforzar la decisión de ELA...

–Así es. Lejos de cambiar sus políticas antisociales, las han intensificado. Ejemplo de ello es la utilización de la Diputación Foral de Bizkaia para vetar el debate en el Parlamento Vasco sobre la ILP impulsada por ELA y avalada por 110.000 firmas para establecer unos mínimos en materia de subcontratación pública; la propuesta de Ley de Empleo Público; la decisión unilateral del gobierno de terminar con las ayudas a la conciliación; o su negativa a pagar las cuotas de ITZARRI o devolver el 100% de la paga extra de 2012, cuestiones que otras instituciones ya han hecho.

Es evidente que el Gobierno Vasco no quiere un diálogo social real y nosotros no vamos a ser cómplices de la farsa que quieren poner en marcha.

El 1 de octubre ELA reiteró al consejero de Empleo, Juan Mari Aburto, su negativa a participar en la mesa de diálogo social que va a constituir en la CAPV, calco de las existentes en Navarra o Madrid. La respuesta de ELA fue taxativa: “las políticas antisociales del gobierno son las que impiden un diálogo social real”. Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, recuerda la postura de nuestro sindicato sobre el llamado *diálogo social*.

–Qué valoración hace ELA del documento presentado por Aburto?

Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren akordioak ez die aurre egiten LOMCEren oinarrizko erasoei

URRIAK 11, LOMCE-REN AURKAKO MOBILIZAZIOAK



Urriaren 11n manifestazioak egingo dira Hego Euskal Herriko hiriburuetan hezkuntza alorreko eragile ugariak –ELA tartean– deituta. Protesten helburua LOMCE legeari ez esatea eta Euskal Herriko hezkuntza sistema propioa aldarrikatzea izango da. Deitzaileek azpimarratzen dutenez, manifestazioak jendetsuak, zaratuak, aldarrikatzaileak eta alaiak izatea nahi dute, argi eta garbi geratu dadin herri honen gehiengoaren nahia: LOMCE ez ezartzea eta hezkuntza sistema Euskal Herrian eraiki ahal izatea. Hauek dira lekuak eta orduak: **Bilbo** –17:30, Jesusen Bihotza–, **Gasteiz** –18:00, Andra Mari Zuriaren Plaza–, **Donostia** –17:30, Boulevard–, **Donostia** –17:30, Boulevard–, **Iruñea** –17:30, Antoniutti–.

AKORDIOAK EZ DIE LOMCE-REN OINARRIZKO ERASOEI AURRE EGITEN

Bestalde, irailaren 29an jakin zen Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren akordio batera iritsi direla LOMCE hezkuntza erreformaren hainbat puntu interpretatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko orduan. ELAren ustez, akordioak ez die aurre egiten lege honen oinarrizko erasoei. Izan ere, erreformak suposatzen duen atzerapauso pedagogikoa, ikuspegi merkantilista, eduki ideologikoa eta hezkuntza sistemaren gaineko ia erabateko kontrolak Espainiako Gobernuaren esku jarraituko lukete.

www.ela-sindikatu.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatu.eus

**Franqueo concertado
nº 08/207**